


Jauregik ez du Heziketa Iraunkorraren akordioa betetzen ELA eta LABen ustez

Espainiako aurrekontuetan hori gauzatzeko dirurik ez aurrikusi izana salatu dute

Sindikatu guztiek, enpresarien elkarteak eta Eusko Jaurlaritzak EAEko Heziketa Iraunkorri buruzko akordioa sinatu zuten irailean. Baina, bestelakoa espero bazen ere, akordioa gauzatzeko ez dute dirurik aurrikusi Espainiako 3 aurrekontuetan. Hori dela-eta, Ramon Jauregi, Lan sailburua, gogor kritikatu dute sindikatuek.



Sindikatu irudiko, Ramon Jauregi, Lan sailburua, «ez du ahaleginik egin EAEn sinatutako konpromezua bete dadin baliabideak bermatzeko»

ARTXIBOKOA

Erredakzioa / Donostia

RAMON JAUREGIK, Lan sailburua, «ez du ahaleginik egin EAEn sinatutako konpromezua bete dadin baliabideak bermatzeko», sindikatu abertzaleen irudiko. Gainera, UGT eta CCOO ere akordioaren kontra presio egin dutela salatu dute ELA eta LAB sindikatuek.

EAEko sindikatu guztiek, Eusko Jaurlaritzak eta Confesbaskek —enpresarien elkarteak— Lanbide Hezikuntza Iraunkorrerako dirua EAEn bertan kudeatzea

hitzartu zuten irailean. Arlo horretan lan egingo zuen fundazioa osatzea erabaki zuten, halaber. Egitasmoa abian jartzeko dirua

Espainiako aurrekontuetatik eskuratzea espero zuten sinatzaileek. Baina, ostegunean iazko aurrekontuak luzatzea erabaki

zuen Madrilgo Gobernuak, eta horietan ez da dirutzarik aurrikusten EAEko Lanbide Heziketaren akordioa aurrera atera ahal izateko.

«Ez du Heziketa Iraunkorrerako euskal akordioa bermatzen. Are gehiago, ez du akordioa aipatu ere egiten», adierazi du ELAk Espainiako aurrekontuak luzatzeko Madrilgo Gobernuak erabili duen lege dekretua aztertu ondoren. EAEko akordioaren finantzabideak Batzorde Hirukoitzaren esku geldituko litzateke, eta hor UGTk, CCOO eta Espainiako Enpresa Erakundearen Konfederazioak (CEOE) dute gehiengoa. ELAk azpimarratu duenez, «elkarte horiek EAEko akordioaren guztiz kontrakoak dira, eta finean, beraien hitzak erabaki politikoek baino gehiago balioko du».

LAB sindikatua ere iritzi berekoa da. «Interes politikoak direla medio, hemengo akordioa balio gabetu egin dute. Forcem-eko kideak dira egoera honen bultzatzaileak eta hemen akordiorik ez izateaz profitatzen direnak, hots, CCOO, UGT eta CEOE», dio LABek atzo zabaldutako prentsa agiri batean. X

Nafarroako Enplegurako Formazio Kontseilua eratu da

Erakunde honen mugak salatu eta sindikatu abertzaleak baztertzea kritikatu du LABek

Erredakzioa / Iruñea

NAFARROAKO Enplegurako Formazio Kontseilua (Confef) eratu zen atzo. Erakunde honen eginkizuna formazio okupazional eta iraunkorren alorrean Iruñeko Gobernuari aholkularitza eta proposamenak egitea da. Gobernuak alor hauetan egiten dituen proiektuetan.

Confef Administrazioari zuzpe ordezkarik, sindikatuetako bostek, enpresari elkarteetako lauk, ekonomia sozialeko elkarteetako batek eta formazio okupazional zentroetako bik osatzen dute. Presidentea Nafarroako Lan zuzendaria da.

LAB sindikatua erakunde honen sorrera kritikatu du, eta «gure sindikatuak bertan parte hartzeko egitura eta funtzio gutxienekoak ere ez ditu betetzen» adierazi.

Confef erakunde aholkularia izanik, «sindikatuak ez dute gestio eta erabakitze gaitasunik», dio LABek. X

INOIZ EGIN DEN SAGARDOTEGIRIK

SAGARDOTEGIRIK

egin

TX TX

ERRALDOIENA

96

Euskal Rockaren argazki erakusketa

Musika txapelketaren 10 talde aukeratuak

Munduko sagardorik onena, dohainik.

Fantzie eta maketa azoka

EXKIXUREN MONTAI berriaren aurkezpena

ETSATAK

TAPIA TA LETURIA BAND

3 KARPA, TXOZNA, 300.000 W. argi

Bilboko Etxebarria parkean, Arrats. 5etatik aurrera.

1996.eko Otsailaren 10ean...